



ARABA
2025
URRIA

Ondarearen Europako Jardunaldiak



Ondarea eraikitzen



Ondarearen europako
jardunaldiak
Jornadas europeas
de patrimonio



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba  álava
foru aldundia diputación foral



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



GIPUZKOA



 ndarearen Europako Jardunaldiak herritarrek parte hartzeko ate irekien proiektu bat dira 1991tik, Europako Kontseiluaren ekimenez Europar Batasunarekin lankidetzan antolatuak. OEJek bilatzen dute guztion ondarea sustatzea, ezagutza partekatzea eta herritarrak sentsibilizatzea, gure kulturen ondare materiala eta ez-materiala babestu eta zaintzeko beharraz.

Edizio honetarako proposatutako gaia **Ondare Arkitektonikoa** izango da. Hori oinarri hartuta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Historikook «**Ondarea eraikitzen/Construyendo cultura**» lelo komuna sortu dugu.

Gaia oso zehatza dela dirudien arren, jardunaldien helburua arkitekturari ikuspegi zabalarekin heltzea da, bere beste giza diziplina batzuekin lotuta. Arkitekturak, funtzionaltasun hutsetik harago, kultura-nortasuna sortzen duten gizarte-harremanetarako espazioak eratzen ditu, eta elementu bakar batean giza errealitate ugari laburbiltzen laguntzen du, hala nola Arabako Lurralde Historikoko historia, ohiturak, teknikak eta lanbideak, beste gizarte batzuekiko harreman artistiko, ekonomiko eta filosofikoak etab.

Ondarearen Europako Jardunaldiak 2025

ASTEAZKENA, urriak 1 • ZINEMA ARKEOLOGIKOA. FICAB IBILTARIA <i>Liban, les secrets du royaume de Biblos ('Biblos, agerian')</i>	7
OSTEGUNA, urriak 2 • HITZALDIA « <i>La arquitectura en manuscritos medievales y renacentistas</i> » (<i>'Arkitektura Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetan'</i>)	9
LARUNBATA, urriak 4 • IBILBIDE NATURALA ETA KULTURALA <i>Antoñana, toba eta ura</i>	11
IGANDEA, urriak 5 • BISITA GIDATUA <i>Llantenoko hilerria</i>	13
OSTIRALA, urriak 10 • MUSIKA KONTZERTUA. MUSIKARTA <i>Ganbera-musika. Kontzertua Bendañan.</i> (<i>Musikarta · Musika kartetan aldi baterako erakusketari lotutako jarduera</i>)	15
OSTIRALA, urriak 10 • HITZALDI-TAILERRA <i>Labe lehorra, Alemaniatik Llantenora</i>	17
LARUNBATA, urriak 11 • HITZALDIA <i>Un Palacio en la Senda: Agustín Zulueta («Jauregi bat Senda ibilbidean»)</i> ..	19
IGANDEA, urriak 12 • BISITA GIDATUA « <i>Villarruinas</i> ». <i>Paseo arkeologikoa gerraosteko berreraikuntzan, Legutio</i>	21
ASTEARTEA, urriak 14 • BISITA GIDATUA <i>Vitoria-Gasteizko alde zaharreko etxarteak</i>	23
ASTEAZKENA, urriak 15 • HITZALDIA <i>Viaje a las arquitecturas desaparecidas en Álava.</i> (« <i>Araban desagertutako arkitekturetara bidaia bat</i> »)	25
OSTEGUNA, urriak 16 • HITZALDIA « <i>Un patrimonio forjado con hierro y papel. Una visión de Araia y Vitoria (siglos XIX-XX) a través de las arquitecturas de la siderúrgica, Urigoitia / Ajuria y Urigoitia, y la fábrica de naipes, Heraclio Fournier.</i> » (<i>'Burdinaz eta paperez landutako ondarea. Araia eta Gasteiz (XIX-XX. mendeak), Urigoitia/Ajuria eta Urigoitia siderurgia-arkitekturen eta Heraclio Fournier karta-fabrikaren bitartez'</i>)	27



Urrian zehar



Bisita gidatuak Arabako museoetara

Norentzat: Ikusmen-, mugikortasun- edo adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat.



Eguna eta ordua: Hitzartu behar dira.

Bisitak eskatzea: educacionmuseosyarqueologia@araba.eus


OSTIRALA, urriak 17 • MUSIKA KONTZERTUA. MUSIKARTA	
<i>Musika eta dantza. Kontradantzak</i> (Musikarta · Musika kartetan aldi baterako erakusketari lotutako jarduera)	29
LARUNBATA, urriak 18 • BISITA GIDATUA	
<i>La Mina (Molinilla) eta La Lastra (Salcedo) trikuharriak eta San Miguele</i> <i>Goi Erdi Aroko nekropolia (Molinilla)</i>	31
LARUNBATA, urriak 18 • BISITA GIDATUA	
<i>Vasco-Navarro trenbidearen arkitektura.</i>	33
LARUNBATA, urriak 18 • BISITA ANTZEZTUA	
<i>«Lanbide antzeztuak»</i>	35
LARUNBATA, urriak 18 • HITZALDI-AURKEZPENA	
<i>Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren 250 urteak</i> <i>ospatzeko karta-sorta.</i>	37
LARUNBATA, urriak 18 • BISITA GIDATUA	
<i>Dobela Enea El Campillarren (Araba)</i>	39
IGANDEA, urriak 19 • BISITA GIDATUA	
<i>Araia, Ajuria eta Urigoitia SAREN arrastoa.</i>	41
ASTEAZKENA, urriak 22 • BISITA GIDATUA	
<i>Arkitektura Elizbarrutiko Artxibo Historikoan: Aztarnak,</i> <i>proiektuak eta dokumentuak</i>	43
OSTEGUNA, urriak 23 • HITZALDIA	
<i>«Las casas-torre bajomedievales en Aiaraldea. De torre a casa: su evolución desde el fin de las luchas de bandos» ('Behe Erdi Aroko dorretxeak Aiaraldean. Dorretik etxera: bandoen arteko borrorak amaitu zirenetik izan duen bilakaera').</i>	45
OSTIRALA, urriak 24 • TAILERRA	
<i>Irrintzi tailerra, irrintzira hurbiltzea eta gaur egun duen garapena</i> (Irrintziren soinu-barietatea, abesten den espazioaren arabera)	47
IGANDEA, urriak 26 • BISITA GIDATUA	
<i>Gesaltza Añanako Zambrana-Herran Jauregia</i>	49
OSTEGUNA, urriak 30 • HITZALDIA	
<i>«Iglesia San Francisco» liburuaren aurkezpena</i> (Zaramagako elizari buruzko monografia)	51
LARUNBATA, azaroak 1 • BISITA GIDATUA	
<i>Los Lanos gaztelua, Ozion</i>	53

BiBat Museoa,
Arkeologia Museoa
eta Fournier Karta Museoa
945 203 707

Arma Museoa
945 181 925

Natura Zientzien Museoa
945 181 924
(Ez da irisgarria mugikortasun arazoak
dituzten pertsona guztientzat):

Arte Ederren Museoa
945 181 918



ASTEAZKENA, urriak 1

ZINEMA ARKEOLOGIKOA. FICAB IBILTARIA

Liban, les secrets du royaume de Biblos (*"Biblos, agerian"*)

Fitxa teknikoa: **Zuzendaria:** Philippe Aractingi

Kultura: Fenizia

Iraupena: 90 minutu

Hizkuntza: Frantsesa (azpтитuluak gaztelaniaz)

Urtea: 2025

Ordua: 19:00etan.

Lekua: BiBat Museoa (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Sarrera: Librea edukiera bete arte.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: FICAB eta BiBat Museoa

Libanon, Biblos hiriaren milaka urteko aztarnak Ekialde Hurbileko aztarnategi arkeologiko liluragarrienetako bateko parte dira. Arkeologo talde frantziar-libanoar batek aurkikuntza aparta egin zuen: hiriko akropoliaren hegoaldean, 4.000 urtez lurperatutako nekropoli handi bat topatzea.

«Libano: Bibloseko erresumaren sekretuak» dokumentalak arkeologo talde gogotsuaren eguneroko bizitza jarraitzen du, hilobi horiek induskatzen dituzten bitartean, eta Brontze Aroan zehar izandako hiriaren eta bertako biztanleen urrezko garaiko ikuspegi berri bat erakusten dute.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



OSTEGUNA, urriak 2

HITZALDIA

«La arquitectura en manuscritos medievales y renacentistas»

(*'Arkitektura Erdi Aroko eta Errenazimentuko eskuizkribuetan'*)

Ordua: 19:00etan.

Lekua: BiBat Museoa (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Hizlaria: Andrés Krakenberger Larsson.

Sarrera: Librea edukiera bete arte.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

Laguntzailea: BiBat Museoa

Kodize miniatuetan irudikatutako arkitekturak helburu ugari izan zituen, baliabide dekoratiboa izatetik eszenak testuinguruz hornitu eta leku sinboliko, zerutar edo infernuzkoak erakusteraino.

Hitzaldi atsegin batean, Andrés Krakenbergerrek liburu miniatuak eta Breviario Grimani edo Catalina de Clevesen Orduen Liburua bezalako kodize garrantzitsuen arkitektura-irudikapenak izango ditu mintzagai. Erdi Aroko eraikuntza hobe ulertzen lagunduko diguten arkitekturak ere erakutsiko dizkigu.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



LARUNBATA, urriak 4

IBILBIDE NATURALA ETA KULTURALA

Antoñana, toba eta ura

Ordua: 10:00etan. (Gutxi gorabehera 3 orduko iraupena)

Elkargunea: Antoñana. Aparkalekua (Arrabal kalea, z/g)

Hizkuntza: Gaztelania.

Zailtasuna: Ertaina-baxua.

Gida: Natouring Turismo, Comunicación y Medio ambiente S.L.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Erreserbak: reservas@kalearte.com /945101070.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzailea: Natouring Turismo, Comunicación y Medio Ambiente S.L.

Gomendioak: Arropa eroso, kirol-oinetakoak eta ura eramatea gomendatzen da.

Ibilbide gidatu honetan, Antoñanako Erdi Aroko hiribilduaren ondare historiko eta arkitektonikoa ezagutuko dugu, eta gertu dagoen Aguaqueko ur-jauzia bisitatuko dugu. Toba izango dugu hizpide, mota horretako lekuetan sortzen den arroka, harrisiaren, elizaren eta Antoñanako eta inguruko herrietako beste eraikin batzuen hormetan aurki dezakeguna.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsontzako irisgarria.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

6. linea. Vitoria-Gasteiz/Santikurutze Kanpezu/Lizarra: 945 182 060. Vitoria-Gasteizko irteera (autobus geltokia): 9:00. **ITZULERA:** Irteera Antoñanatik: 14:10 / 17:21



**DIO
CE
SIS+** Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

Junta
Administrativa
Llanteno
(Álava)



Llanteno
Administrazio
Batzarra
(Araba)

IGANDEA, urriak 5

BISITA GIDATUA

Llantenoko hilerria

Ordutegiak: 11:00etan. / 13:00etan.

Topalekua: Llantenoko Santiago eliza (Satia auzoa, 4)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlaria: Luis Padura Elorza (Llantenoko Arte Elkarte)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Erreserbak: reservas@kalearte.com /945101070.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Llantenoko Administrazio Batzarra, Aiaran.

Laguntzaileak: Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Elizbarrutia.

Bisita Llantenoko hilerrian egingo da, baina Santiago parrokiara ere iritsiko da.

Arabako herri honetako hilerrian Murga familiaren panteoi neogotikoa dago. Murga XIX. mendeko burges leinu garrantzitsuenetako bat da, Madrilekin lotura ekonomiko eta familiar handiak izan zituenak.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsontentzako irisgarria.



ARABAKO FOURNIER KARTA MUSEOA
 MUSEO FOURNIER DE NAIPES DE ÁLAVA

oati
 Arkeologia
 Fournier de Naipes
 Museoa

OSTIRALA, urriak 10

MUSIKA KONTZERTUA. MUSIKARTA

Ganbera-musika. Kontzertua Bendañan.

(Musikarta · Musika kartetan aldi baterako erakusketari lotutako jarduera)

Ordua: 19:00etan.

Lekua: BiBat Museoa. Bendaña Jauregia (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Musikariak: Bóreas Cámara.

Sarrera: Librea, edukiera bete arte.

Antolatzailea: BiBat Museoa.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Taldearen helburua ganbera-musika zabaltzea da. Oraingo honetan, museoko musika-karta sorta batzuetan inspiratu da, Bendañako Jauregiarekin lotutako gaiak barne, esparru arkitektonikoa nabarmentzeko.

OEJ 2025erako propio sortutako ikuskizun hau estreinatuko da, musika klasikoa eta modernoa ondarearen bidez konektatzeko helburuarekin.


Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.





Artziniegako Udala
Ayuntamiento de Artziniega

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



**Artziniega
MUSEOA**

OSTIRALA, urriak 10

HITZALDI-TAILERRA

Labe lehorra, Alemaniatik Llantenora

Ordua: 19:30ean.

Lekua: Artziniega Museoa (Artziniega. Arteko Aldapa kalea, 12)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlaria: Luis Padura Elorza.

Sarrera: Librea edukiera bete arte.

Antolatzailea: «Artea» Etnografia Elkartea.

Laguntzaileak: Artziniegako Udala, Fundación Vital Fundazioa eta Arabako Foru Aldundia.

Luis Padura errementariak labe lehorraren Erdi Aroko teknika erakutsiko digu, mendian burdina labeetan urtzeke erabiltzen zena.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko
pertonentzat.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

15. linea. Vitoria-Gasteiz/Amurrio/Laudio. 945 182 060. Vitoria-Gasteizko irteera (autobus geltokia): 16:30/17:35.. Amurrion irteera. Han hartu **16. linea.** Okondo/Artziniega. 945 182 060. Ezinbestekoa da aldeztu aurretik erreserba egitea. Irteera Amurriotik: 18:14. **ITZULERA: 16. linea.** Okondo/Artziniega. 945 182 060 Ezinbestekoa da aldeztu aurretik erreserba egitea. Irteera Artziniegatik: 20:50 Amurrión hartu **15. linea.** Amurriotik itzultzea: Irteera Amurriotik: 21:49.



Arabako Arte Eder Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

LARUNBATA, urriak 11

HITZALDIA

Un Palacio en la Senda: Agustín Zulueta («Jauregi bat Senda ibilbidean»)

Ordua: 12:00etan.

Lekua: Arabako Arte Ederren Museoa (Vitoria-Gasteiz, Frai Francisco de Vitoria pasealekua, 8)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlariak: Ana Arregui Barandiaran (AARE Servicios Culturales S.L.)
Edurne Martín Ibarraran (historialaria)

Sarrera: Librea edukiera bete arte.

Antolatzailea: Arabako Arte Ederren Museoa.

Laguntzaileak: Arabako Foru Aldundia eta AARE Servicios Culturales S.L.

Elvira Zulueta eta Ricardo Agustín senar-emazteek 1912 eta 1916 bitartean eraiki zuten jauregi hau, Javier Luque eta Julián Apraiz arkitektoen zuzendaritzapean. Egoitza Gasteizko Zabalguneko gune nagusiko orube batean dago, gaur egungo Frai Frantzisko Pasealekuan. Bertan, garai hartako arkitektura historizistaren korrontea jarraitzen duten beste zenbait etxe ditugu.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



INSTITUTO ALAVÉS
DE ARQUEOLOGÍA



ARKEOLOGIARAKO
ARABAR INSTITUTUA

IGANDEA, urriak 12

BISITA GIDATUA

«Villarruinas». Paseo arkeologikoa
gerraosteko berreraikuntzan, Legutio.

Ordua: 10:30ean.

Elkargunea: Legutio. Erdi Aroko arkua (Bekuri kalea, 4)

Hizkuntza: Euskara.

Gida: Josu Santamarina Otaola

(Instituto Alavés de Arqueología-Arkeologiarako Arabar Institutua)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzailea: Instituto Alavés de Arqueología-Arkeologiarako Arabar Institutua.

1936ko neguan, Legutioko Guduak suntsipen handia utzi zuen Legutio herrian, ia eguneroko bonbardaketak jasan baitzituen. Propaganda frankista berehala saiatu zen suntsipena kapitalizatzen, herriari «Villarruinas» ezizena emanez. 1940an Estatu Berriak bereganatu zuen Legutioko berreraikuntza, honen «adopzioarekin». Izan ere, Legutio izan zen Francok «konpontzeko» hartutako herri bakarra Araban. Ibilbide arkeologiko honen bidez, prozesu horren aztarna arkeologiko eta arkitektonikoak ezagutuko ditugu.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsontentzako irisgarria.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

18. linea. Vitoria-Gasteiz/Durango. 945 182 060. Vitoria-Gasteizko irteera (autobus geltokia): 10:00

ITZULERA: 18. linea. Irteera Legutiotik: 12:18/14:48/17:13/20:18



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



WIKIMEDIA
ESPAÑA

ASTEARTEA, urriak 14

BISITA GIDATUA

Vitoria-Gasteizko alde zaharreko etxarteak.

Ordua:17:00etan.

Elkargunea: Vitoria-Gasteiz. Turismo Bulegoa (Espainia plaza, 1)

Hizkuntza: Gaztelania.

Gida: Gaia Talde Ekologista.

Antolatzailea: Vitoria-Gasteizko Udala.

Laguntzaileak: Arabako Foru Aldundia eta Wikimedia España.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Erreserbak: 945 101 070 / reservas@kalearte.com

Erdi-Aroko hiri-espazioak dira etxarteak, eta haien lehen funtzioa muinoko etxebizitzetako ur zikinak botatzeko hustubidea izatea izan zen. Bere izena urak iga-rotzen ziren lurra zuen etxe arteko ubide formatik dator. Gaur egun, erabilera mugatuko eta udal-jabetzako espazioak dira, Erdi Aroko hiriguneko etxadien barruan kokatuta daudenak, eta etxebizitzak aireztatzeko eta argiztatzeko espazio gisa balio dute.


Bisita hau wiki-tailer batekin konbinatzen da, hau da, gure hirietako ondare esanguratsuenari, baina aldi berean ezezagunenari buruzko irudiak biltzeko elkarlaneko proiektu batekin.

Jarduera hau ConMiWiki proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektu honen helburua Wikimedia proiektuetan Arabako ondarea hobetzea da, bertako biztanleekin batera.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonek irigarria.



ENKLABE
ARQUEOLOGÍA · TOPOGRAFÍA · PATRIMONIO

oati
Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa

ASTEAZKENA, urriak 15

HITZALDIA

*Viaje a las arquitecturas desaparecidas en Álava.
(«Araban desagertutako arkitekturetara bidaia bat»)*

Ordua: 19:00etan.

Lekua: BiBat Museoa (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlaria: Ismael Garcia Gómez

(Arkeologoa. Erdi Aroaren Historian doktore. Enklabe KST)

Sarrera: Librea, edukiera bete arte.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzailea: Enklabe KST eta BiBat Museoa.

Arabak ondare historiko-arkitektoniko aberatsa du; hala ere, mendeetan zehar, asko izan dira desagertutako eta ahaztutako monumentuak. Hitzaldi honetan, Ismael Garcia-Gómezek galdutako arkitektura horiek gogora ekartzeko bidaia bat planteatzen digu. Araba osoa zeharkatuko dugu, dagoeneko ez dauden eraikin esanguratsuenen bila. Ikertutako guztiaren laguntzaz, bere garai distiratsuetan izan zuten itxura irudikatzen saiatuko gara.

Irisgarritasuna:




Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.

FACHADA A LA CALLE DEL SUR.



Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa



ASPARRENA
hamarrak bat

OSTEGUNA, urriak 16

HITZALDIA

«Un patrimonio forjado con hierro y papel. Una visión de Araia y Vitoria (siglos XIX-XX) a través de las arquitecturas de la siderúrgica, Urigoitia / Ajuria y Urigoitia, y la fábrica de naipes, Heraclio Fournier». ('Burdinaz eta paperez landutako ondarea. Araia eta Gasteiz (XIX-XX. mendeak), Urigoitia/Ajuria eta Urigoitia siderurgia-arkitekturen eta Heraclio Fournier karta-fabrikaren bitartez').

Ordua: 19:00etan.

Lekua: BiBat Museoa (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlaria: Paz Larrumbide Moreno (arkitektoa eta ikertzailea)

Edukiera: Librea, edukiera bete arte.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzailea: Asparrenako Udala eta Museo BiBat.

Arabako bi industria aitzindariaren bi familia sagak (Leon Urigoitia eta Heraclio Fournier): bata siderurgikoa eta bestea karta-ekoizlea. Haien jarduerak ezagutzea funtsezkoa da ezagutzen dugun orainaldian duten eragina ulertzeko. Ekoizteaz gain, beren tokiaren hiri-garapenean esku hartu zuten, eta, bi kasuetan, beren posizio aberatsari esker, beren kideek hainbat mundutan nabarmendu ahal izan zuten, hala nola enpresa-munduan, politikoan, abiazioarenean, arte grafikoetan edo kulturean.

Hitzaldian inguruko gizartearen eraldaketa ezagutzeko aukera egongo da, industrializazioaren lehen urteetan patroiei lotutako arkitekturetan barrena egindako bidaia baten bidez. Nahiz eta jatorri eta helburu hain ezberdinak izan, bi industriek ezaugarri komun asko dituztela ikusiko da.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna.



Irisgarritasuna mugikortasun urriko pertsonentzat.



ARABAKO FOURNIER KARTA MUSEOA
MUSEO FOURNIER DE NAIPES DE ÁLAVA

bat
Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa

OSTIRALA, urriak 17

MUSIKA KONTZERTUA. MUSIKARTA

Musika eta dantza. Kontradantzak

(Musikarta · Musika kartetan aldi baterako erakusketari lotutako jarduera)

Ordua: 19:30etan.

Lekua: BiBat Museoa. Bendaña Jauregia (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Musikariak: Luis Aramburu Musika Eskolako Folklore Akademia eta Mulixka Dantza Taldea.

Sarrera: Librea, edukiera bete arte.

Antolatzailea: BiBat Museoa.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Luis Aramburu Udal Musika Eskolako Folklore Akademiak eta Mulixka Dantza Taldeak Kontradantzak interpretatuko dute, XVIII. mendeko hainbat doinu, Four-nier Karta Museoko bildumako karta-sorta batean jasoak. Dantzek garaiko kon-tradantzen deskribapenetan oinarritutako koreografiak aurkeztuko dituzte, eta bertsio musikala musika tradizionaleko instrumentuekin interpretatuko da.

OEJ 2025erako propio sortutako ikuskizun hau estreinatuko da, musika, dantza eta kartak uztartzeko helburuarekin.


Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



LARUNBATA, urriak 18

BISITA GIDATUA

La Mina (Molinilla) eta La Lastra (Salcedo) trikuharriak eta San Miguele Goi Erdi Aroko nekropolia (Molinilla)

Ordua: 9:30ean.

Elkargunea: Salcedo. Erlojuaren Dorrearen ondoan. (Erlojuaren kalea, 5)

Hizkuntza: Gaztelania.

Gida: Pedro Lobo

(Instituto Alavés de Arqueología-Arkeologiarako Arabar Institutua)

Edukiera: Murritzua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzailea: Instituto Alavés de Arqueología-Arkeologiarako Arabar Institutua.

Lekualdaketak: Ez da autobusik egongo puntu batetik bestera joateko. Pertsona bakoitzak bere kabuz egingo du.



Gomendioak: Arropa eroso, kirol-oinetakoak eta ura eramatea gomendatzen da.

Goizean zehar, La Mina eta La Lastra trikuharriak bisitatuko ditugu, 1927. urtean eta 1942. urtean aurkitu zituztenak, hurrenez hurren. Horiek erabilita, Arabako Historiaurrean oso ohikoak izan ziren eraikuntza megalitikoek ezaugarriak azalduko dira. Horretaz gain, San Miguele nekropoli interesgarria ikusiko dugu, harrian egindako sarkofagoz osatua. 1971n ehorzketa gune gisa identifikatua. Erromatar Inperio Berantiarreko amaieratik Goi Edi Arora arteko erabilera-sekuentzia ezarri izan zuena.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



LARUNBATA, urriak 18

BISITA GIDATUA

Vasco-Navarro trenbidearen arkitektura

Ordua: 10:30ean.

Elkargunea: Antoñana. Vasco-Navarro Bide Berdearen Interpretazio Zentroa (Geltoki kalea, z/g)

Hizkuntza: Gaztelania.

Gida: Natouring Turismo, Comunicación y Medio ambiente S.L.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Antolatzaileak: Natouring Turismo, Comunicación y Medio Ambiente S.L. eta Wikimedia España.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Lekualdaketak: Ez da autobusik egongo puntu batetik bestera joateko. Pertsona bakoitzak bere kabuz egingo du.

Gomendioak: Arropa eroso, kirol-oinetakoak eta ura eramatea gomendatzen da.

Goizean zehar, Vasco-Navarro Bide Berdearen Interpretazio Zentroa (Antoñana) bisitatuko dugu, bere historia ezagutzeko, eta Vasco-Navarro trenbideak zeharkatutako Arabako Mendialdeko hainbat herritara hurbilduko gara, iraganeko geltoki batzuk ezagutzeko eta argazkiak ateratzeko, Wikimedia Commons-en eta Wikipedia-n eskuragarri dagoen informazioa aberasteko.

Jarduera hau ConMiWiki proiektuaren barruan kokatzen da. Proiektu honen helburua Wikimedia proiektuetan Arabako ondarea hobetzea da, Arabako kontzejuetako biztanleekin batera.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



Artziniegako Udala
Ayuntamiento de Artziniega

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



**Artziniega
MUSEOA**

LARUNBATA, urriak 18

BISITA ANTZEZTUA

«Lanbide antzeztuak»

Ordutegiak: 11:00etan / 18:00etan (Gaztelaniaz)

12:30ean / 17:00etan (Euskaraz)

Lekua: Artziniega Museoa (Artziniega. Arteko Aldapa kalea, 12)

Antzezleak: AMBOSTRES Antzerki Taldea-Grupo de Teatro.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Erreserbak: 945396210 eta arteaelkartea@gmail.com

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 24 ordu lehenago.

Antolatzailea: «Artea» Etnografia Elkarte.

Laguntzaileak: Artziniegako Udala, Fundación Vital Fundazioa eta Arabako Foru Aldundia

Artziniega Museoa lanbideei lotutako tresna eta elementuz beteta dago. Badira eraikuntzari (arotzak, igeltseroak...), nekazaritza-lanei (sega, ereitea...) edo manu-fakturari (zapatagintza, errementaritza...) lotutako materialak. Aurrez erreserbatutako bisitan, ogibide batzuk antzeztuko dira. Ez da Museo Bizian bezala egingo, baizik eta lanbide horiek erreferentzia gisa hartuta, istorio bat sortuko da haien inguruan, eta hainbat aktorek antzeztuko dute, garai bateko bizimoduak, hizkuntza, pasadizoak... nabarmenduz.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



ESCUELA
ARTES + OFICIOS
VITORIA-GASTEIZ
ARTE + LANBIDE
ESKOLA



Arabako Arte Eder Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

LARUNBATA, urriak 18

HITZALDI-AURKEZPENA

Vitoria-Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren 250 urteak ospatzeko karta-sorta.

Ordua: 12:00etan.

Lekua: Arabako Arte Ederren Museoa (Vitoria-Gasteiz, Frai Francisco de Vitoria pasealekua, 8)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlaria: Nuria Pérez-Cárcamo Samaniego (karta-sortaren diseinatzailea eta Arte eta Lanbide Eskolako irakaslea)

Sarrera: Librea, edukiera bete arte.

Antolatzailea: AMBA eta Arte eta Lanbide Eskola.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia eta Arte Ederren Museoa.

Arte eta Lanbide Eskolaren 250. urteurrena eta Heraclio Fournier-en 155. urteurrena direla eta, oroitzapenezko karta-sorta bat diseinatu da. Azken horrek bi erakundeetako kide izan arren historian itzalita geratu diren emakumeen garrantzia azpimarratzea du helburu. Izen-abizenak jarritz eta eremu pertsonal eta profesionalean emakumeen konkista sozialean garrantzitsuak izan ziren pertsonen presentzia emanez, emakumeak ahanzturatik berreskuratzen dira eta protagonista izatera pasatzen dira.

Eskolaren eta Fournierren arteko harremana ere ezagutuko dugu. Lantegiaren bultzatzaileak, Nieves Partearroyo Alexandrek, bere senar Heraclio Fournierren izenean, funts bat utzi baitzion erakunde akademikoaren liburutegiari.


Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsontentzako irisgarria.



Irisgarria mugikortasun urriko
pertsontentzat.



i n t e r i o r

LARUNBATA, urriak 18

BISITA GIDATUA

Dobela Enea El Campillarren (Araba)

Ordua: 17:00etan.

Topalekua: Gomez de Segura upategiak (El Campillar, Castillejos errepidea, 7)

Hizkuntza: Gaztelania.

Gida: Rebeca Marina López (historialaria, arkeologoa eta kultur kudeatzailea)
Pablo Cuesta San Pedro (arkitektoa, ikertzaile historikoa)

Edukiera: mugatua. Ezinbestekoak dira erreserbak. (25 pertsona)

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Gomendioak: Arropa eroso eta kirol-oinetakoak eramatea. Ura eramatea gomendatzen dugu.

Antolatzailea: Kultur Sarea eta Gomez de Segura Upelategiak.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Ikuspegi arkeologikotik eta historikotik, Erdi Aroko Ardogintza multzo bat eza-gutuko dugu, XVIII. mende amaierako landa-maiorazko bihurtu zena. Dolareak, sotoak, hirularrak, errota, etxea eta finkak ditu. Hau izango da sentsaziozko mundu batera bidaiatzeko abiapuntua, bisitariak bere gertuko inguru geografikora hurbilduko baita eta bere ekitaldi kulturalaz gozatuko baitu.

Bisitan zehar elkarri lotutako bi proiektu kultural ezagutuko dira.

Arabako Errioxako mahastizaintzako eta ardogintzako multzoen sistemetan esku hartzeko eta babesteko eredu gisa balio izatea du helburu Dobela Eneak.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irisgarria.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

5. linea. Vitoria-Gasteiz/Dulantzi/Araia. 945 182 060 Vitoria-Gasteizko irteera (autobus geltokia): 9:30. **ITZULERA:** Irteera Araiatik: 14:30/15:35/19:30


ASPARRENA
 hamarrek bat

IGANDEA, urriak 19

BISITA GIDATUA

*Araia, Ajuria eta Urigoitia SAre*n arrastoa.

Ordutegiak eta topalekuak:

EUSKARA. 1. taldea.. 11:00etan. Araia. Ajuria y Urigoitia Fundizioaren aparkalekua S.A. (Salsamendi kalea, 30). **13:00etan.** Araia. Herriko plaza.

GAZTELANIA. 2. taldea. 11:00etan. Araia. Herriko plaza. **13:00etan.** Araia. Ajuria y Urigoitia Fundizioaren aparkalekua S.A. (Salsamendi kalea, 30)

Hizlariak: - Gaztelania: Beatriz Herreras Moratinos (Ondartez)

- Euskara: Kalearte Turismo y Cultura S.L.L.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Erreserbak: reservas@kalearte.com/945101070.

Antolatzailea: Asparrenako Udala.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Lekualdaketak: Ez da autobusik egongo puntu batetik bestera joateko. Pertsona bakoitzak bere kabuz egingo du.

Gomendioak: Joan zaitez arropa erosoarekin eta kirol-oinetakoekin. Ura eramatea gomendatzen da.


*Ajuria y Urigoitia fabrika Araian dago, Asparrenan (Araba), eta siderurgiaren eske-
ma tradizionala irudikatzen du. Hau da, inguruko baliabide naturalak, ura, egurra
eta erregaia, burdina eta harrobiak erabiltzen ditu. Bere jatorria 1772an Araian
eraiki zen burdinolan dago. 1848tik 1985ean itxi zuten arte, metalurgiako industria
multzo ezberdinen aitzindaria izan zen. Jardunaldi honetan, Araia*ko lantegiari eta
bertako langileen egunerokotasunari lotutako testigantzak ezagutuko ditugu.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irigarria.

Corte dado por la línea A. B. de la Planta.




Escala de suenta piez Castellón.

Fachada para el Portico de la Iglesia del Lugar de Aberasturi.



Junto Antonio de Olagüel. En el libro de Cuentas de fábrica que da principio el año 1780, figura un presupuesto un censo en que consta el pago al escrivano de esta plaza de 100 reales al año, por el uso de la casa de la iglesia de la villa de Aberasturi.

Corte dado por la línea C. D. de la Planta.



**DIO
CE
SIS+** Archivo
Histórico
Arxiibo
Historikoa



**DIO
CE
SIS+** Diócesis
de Vitoria
Gasteizko
Elizbarrutia

ASTEAZKENA, urriak 22

BISITA GIDATUA

Arkitektura Elizbarrutiko Artxibo Historikoan: Aztarnak, proiektuak eta dokumentuak

Ordua: 10:00etan. Bisita gaztelaniaz. / 12:00etan. Bisita euskaraz.

Tokia: Elizbarrutiko Artxibo Historikoa (Vitoria-Gasteiz. Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67)

Hizlariak: Itziar Lafuente Castañeira (artxibozaina)
Vanessa Jiménez Hortas (artxibozaina)

Edukiera: mugatua. Ezinbestekoak dira erreserbak.

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945101070

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia eta Vitoria-Gasteizko Elizbarrutia.

AHDV- GEAH-ak Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiaren historia zaharra eta oraintsua jasotzen du. Bertan gordetako funtsen aniztasunak erakusten digu mendeetan zehar Arabako Elizak egindako bidea. Jarduera honen bidez, arkitekturari lotutako dokumentu batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen digu Artxiboak (trazak, eraikuntza-memoriak, etab.).

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.




Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



TUVISA

BEI A eta B lineak. Geltokia: Seminarioa. **5. linea.** Elejalde. Geltokia: Seminarioa. **7. linea.** Borinbizarra. Geltokia: Seminarioa.



OSTEGUNA, urriak 23

HITZALDIA

«Las casas-torre bajomedievales en Aiaraldea. De torre a casa: su evolución desde el fin de las luchas de bandos»

(*'Behe Erdi Aroko dorretxeak Aiaraldean. Dorretik etxera: bandoen arteko borrokak amaitu zirenetik izan duen bilakaera'*).

Ordua: 19:00etan.

Tokia: BiBat Museoa (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlariak: F. Javier Ajamil Baños. Arkeologoa (Ondare Babesa S.L.)
Aketza Merino Zulueta. Dokumentalista (Ondare Babesa S.L.)

Sarrera: Librea, edukiera bete arte.

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Laguntzaileak: Ondare Babesa eta BiBat Museoa.

Aiaraldeko egungo hainbat eraikinen adibide zehatzekin, Behe Erdi Aroko dorretxeek bandoen gerrak deiturikoak amaitu zirenetik izan duten bilakaera azalduko da. Defentsarako edo prestigiorako gotorlekuetatik laborantza-etxeetara eta, are gehiago, haien hondamendira eta desagertze prozesuraino inoiz.

Azken hamarkadetan, partikularrek sustatutako birgaitzeak egiten ari dira horietako batzuk, baina, beste kasu batzuetan, hainbat faktorek mugatzen dituzte. Gaur egun, gure Kultura Ondarearen zati gisa aldarrikatzen ari dira, nahiz eta batzuetan apaingarri hutsetan soilik geratu.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko pertsonentzat.

IAIAIAI irrintzi taldea



Artziniegako Udala
Ayuntamiento de Artziniega

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA



**Artziniega
MUSEOA**

OSTIRALA, urriak 24

TAILERRA

Irrintzi tailerra, irrintzira hurbiltzea eta gaur egun duen garapena

(Irrintziren soinu-barietatea, abesten den espazioaren arabera)

Ordua: 19:30ean.

Lekua: Artziniega Museoa (Artziniega. Arteko Aldapa kalea, 12)

Hizkuntza: Elebiduna (Euskara eta gaztelania)

Hizlaria: IAIAIAI Irrintzi Taldea.

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Erreserbak: 945396210 eta arteaelkartea@gmail.com

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 24 ordu lehenago.

Antolatzailea: «Artea» Etnografia Elkartea.

Laguntzaileak: Artziniegako Udala, Fundación Vital Fundazioa eta Arabako Foru Aldundia.

Tailer honetan munduko aspaldiko irrintzi eta beste oihu batzuen jatorria ikertu nahi da, eta gaur egun dituen aukerak ikusi. Aktibitatean zehar partaideak irrintziak egitera animatuko da.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarria.




Irisgarria mugikortasun urriko pertsonentzat.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

15. linea. Vitoria-Gasteiz/Amurrio/Laudio. 945 182 060. Vitoria-Gasteizko irteera (autobus geltokia): 16:30/17:35. Amurrion iristea. Han hartu **16. linea.** Okondo/Artziniega. 945 182 060. Ezinbestekoa da aldeztu aurretik erreserba egitea. Irteera Amurriotik: 18:14. **ITZULERA: 16. linea.** Okondo/Artziniega. 945 182 060 Ezinbestekoa da aldeztu aurretik erreserba egitea. Irteera Artzinietatik: 20:50 Amurriion hartu **15. linea.** Amurriotik itzultzea: Irteera Amurriotik: 21:49.



PALACIO
ZAMBRANA
HERRAN
JAUREGIA

IGANDEA, urriak 26

BISITA GIDATUA

Gesaltza Añanako Zambrana-Herran Jauregia

Ordutegiak: 11:00etan. Bisita gaztelaniaz.

12:30ean. Bisita euskaraz.

Topalekua: Gesaltza Añana. Zambrana-Herran jauregia (Karreraren kalea, 14)

Gida: Ander de la Fuente Arana (EHUko Arkitektura irakaslea)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945101070.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Antolatzailea: Palacio de Zambrana-Herrán.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Gesaltza Añanak harridura sortzen du bere txoko bakoitzean. Gatz Haran ikusgarritik metro gutxira, Zambrana-Herran Jauregiaren historia aberatsa ezagutuko dugu, XVII. mendetik aurrerako botere eta garrantzi politiko, ekonomiko eta sozialaren sinboloa. XVIII. eta XIX. mendeetako arkitektura eta dekorazioari esker, jauregi hau Arabako ondarea ezagutzeko ezinbestekoa da.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irisgarria.



ALAVABUS. Gutxi gorabeherako ordutegiak.

13. linea. Vitoria-Gasteiz/Langraiz Oka/Boveda: 945 1820 60, Vitoria-Gasteizko irteera (autobus geltokia): 9:00. **ITZULERA: 13. linea.** Irteera Gesaltza Anañatik: 14:26/18:26.



archivo peña ganchegui

bat
Arkeologia
Fournier de Naipes
Museoa

OSTEGUNA, urriak 30

HITZALDIA

«Iglesia San Francisco» liburuaren aurkezpena (Zaramagako elizari buruzko monografia)

Ordua: 19:00etan.

Tokia: BiBat Museoa (Vitoria-Gasteiz, Aiztogile kalea, 54)

Hizkuntza: Gaztelania.

Hizlariak: -Rocio Peña Azpilicueta eta Mario Sangalli Uggeri (arkitektoak, edizioaren koordinatzaileak)

- Larraitx Arretxea Sanz (historialaria, testuaren egilea)

Sarrera: Librea, edukiera bete arte.

Antolatzailea: Peña Ganchegui Artxiboa.

Laguntzaileak: BiBat Museoa eta Arabako Foru Aldundia.

Luis Peña Gancheguiaren (Oñati, 1926 – Donostia, 2009) lanari buruzko bilduma-ren bigarren atala da "Gasteizko San Frantzisko elizaren" monografia, eta haren ondarea gordetzen duen artxiboak argitaratzen du. Aukera errepikaezina da, eus-kal arkitektoak proiektatutako eliza bakarrari buruzko informazio berria jasotzen baitu argitalpenak. Balio arkitektoniko handia izateaz gain, dimentsio sinbolikoa ere badu, 1976ko martxoaren 3ko gertakari lazgarrien eszenatokia baita.

Irigarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertsonentzako irigarria.



Irigarria mugikortasun urriko
pertsonentzat.



LARUNBATA, azaroak 1

BISITA GIDATUA

Los Lanos gaztelua, Ozion

Ordua: 10:30ean. Bisita gaztelaniaz.

10:50ean. Bisita euskaraz.

Topagunea: Ozio. Gazteluko aparkalekua.

Zailtasuna: Ertaina (10 urtetik gorakoentzat).

Gida: Aitziber Pérez (Castillo de Portilla landetxea)

Edukiera: Mugatua. Ezinbestekoa da erreserba egitea.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenago.

Erreserbak: reservas@kalearte.com / 945101070.

Gomendioak: Joan zaitez arropa erosoarekin eta kirol-oinetakoekin. Ura eramatea gomendatzen da.

Antolatzailea: Castillo de Portilla landetxea.

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia.

Ozioko gotorlekua Lanos haitz ikaragarriaren tontorrean eraiki zen (644 m), garai batean garrantzitsuak ziren bi ibilbide kontrolatzen zituen: Inglares-Ega korridore naturaletik zihoana, eta aurrekoarekin lotzen zuen bidea, muinoaren ondoan, Errioxako lurretatik zetorrena, Loberako atakatik, gertu dagoen Buradon Gatzagatik barrena.

Ez dago gaztelu honi buruzko informazio askorik, baina XI. mendetik XV. mendera arte Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko gatazkekin lotutako gotorleku-multzo baten parte zen.

Irisgarritasuna:



Adimen-desgaitasuna duten
pertonentzako irisgarria.



Ondarearen
Europako
Jardunaldiak

Jornadas
Europeas del
Patrimonio

